


Astekaria

# BARREN elgoi



## LARRAATAGA adoeskola

# o d



Santa Ana II. s' 74 10 II ELGOIBAR




**O  
L  
A  
I  
Z  
A  
G  
A  
K  
I  
O  
D  
E  
G  
I  
A**


**1GERIKE'A KURTSOAK**  
Irdaren lehen astetikaurrera



**AQUAROBIC**  
Irailak 7 asteartea



**IGERIKETA ESKOLA**  
Irailak 12 astelehena



**MANTENIMENDU GIMNASIA  
ETA AEROBIC.**  
Irailak 6 asteartea

**ZATOZ  
ETA INFORMA  
ZAITEZ:**



**Iazko ikastaroen arrakastaren ondoren,  
aurten ere zuen zerbitzura gaude.**

**SAUNA**

**AEROBIC**

**MASAIA**

**MATRIKULA ZARALIK**

**KARATEA**

**SQUASH**

San Roke, I - a (943) 74 13 61

**FRONTOIA**

**IGERILEKUA**

**kin kir® ri**

**MUSKULAZIOA**

elgoiBARREN

Nafarroa enparantza 2

v 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Aniel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurne ~~Rosa~~ Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATTAILEAK:

Maite Rementería,

Edu Sanz.

PUBUZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

irati Agirreazaldegia, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainora

Burgaina, Urizi Etxabe, Asier

Efxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Eixeberría, Izaro Eixegibel, Enetz

Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose

Mari Goldos, Ina Garagarza,

Gotzon Garaie, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guilló, Maite iriondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Leon,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, fxa Sanchez, Jose

Inazio Sarasua, Oihana Tafragual,

Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor

Vazquez, Ana Vila, Miryam

Villasante, Alaitz Vives, Aitor

Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENez ez du bere gain harizen aklizkarian adierazitako esanen eta iritzien eranizunkizunik.

## ZENBAT BURU



# Munduan ezin kabitxui

li ste honetan hasi da Biztanleria eta Garapenari buruzko III. Konferentzia Egiptoko hiriburuan. Guztira mundu zabaleko 168 agintari bildu dira gure arazoak konpontzeko (zer egingo genuke beraiek gabe?). Denak bat etorri dira datozen urteotan Lurra astinduko duen arazo larriena zein den esaterako orduan: jende gehiegi izango gara munduan. Eta zerbait egin behar dela erabaki dute.

Gaur egun 5.630 milioi pertsona gara munduan bizi (edo) garenak. 2050. urterako 7.918-11.500 milioi izango omen gara. Kairon bildutakoak larri. Gainera, mendebalde santuan gero eta ume gutxiago jaiotzen direnez, eta matematikak huts egiten ez badu, datozen urteotan beren biztanleria izugarri hazten ikusiko dutenak "hirugarren mundua" deitzen dioten horretakoak izango dira.


Urduri daude mendebaldeko agintariak: zenbat beltz, hori eta moreno munduan ahora eramateko ogi apurrik gabe! Baina nik nere zalantzak ditut. Benetan pobrezia nagusi den herrietako jendeagatik al daude kezkatuta? Ez ote dira Europa edo Ipar Amerika handietara etorriko diren milioika etorkinen beldur?

Modu batera edo bestera konponbidea aurkitu nahi dute. Lan zaila. Gero eta jende gutxiago hiltzen da eta gero eta gehiago jaio. Baina mendebaldekoak dira hiltzen ez direnak eta "hirugarren mundukoak" jaiotzen direnak. Lehenak ezin hiltzen utzi, beraz, bigarrenak jaiotzea galerazi behar. Nola? Preserbagailuak banatu behar al dira irakurtzen ere ez dakitenen artean? Agintariek erabakiko al dute mundu honetan zeinek erditu dezakeen eta zeinek ez?

Arazoa ikuspuntu ezberdinetatik azter daiteke. Aurreko lerroetan azaldutakoa mundu mailako eztabaida da. Eta Esukal Herrian, zer? Azken egunotan kolore gutzietako iritziak entzun ditugu. Batzuen ustez euskaldunak galtzeko bidean dagoen espeziea gara eta umeak ekarri behar omen dira. Beste batzuentzat hau ezin da seme-alabak edukitzeko arrazoia izan eta bakoitzaren ekonomia eta egoera omen dira erabakiorrak. Besteren bati ere entzun diot arazoaren konponbidea: "hirugarren munduan" gosez hiltzen ari diren umeak gurera ekartzea. Bakoitzak erabaki dezala. Zuk zeuk.

Montse Arregi

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*







Txomin Zabaletak deitu digu BARRENen 73. alean atera genuen albiste bat zuzentzeko. 12. orrialdean "Maalako auzoan Amabirjiñaren omenezko jaiak ospatuko dira" idatzi genuen. Bere hitzetan "Amabirjiria bakarra da, Maria". Madalena ez omen zen birjiña izan inondik inora.



Opor osteko lehenengo ale honetarako bi txalo dauzkagu:

- Gizonezko batek abuztuan San Lorentzo erreka garbitzen ibili zen gazte kuadrila txalotu eta zoriondu nahi du.

- Irakurle batek Txiki Egunean txarangaren atzetik kaleak garbitzen zihoan urkamioiaren ideia benetan ona izan zela adierazi nahi du eta beraz, zorionak eman. Alde ederreko kaleak gelditu omen ziren.

Portada polita izan zitekeen

BARREneko portada ikusi nuenean eta gure Alkatea han zegoela fijatu nintzenean harrিতa geratu nintzen.

Gure Alkatea, Saharaui jantzita, "terrorista" baten ondoan, Polisarioa eta Saharako autodeterminazioaren alde zegoen.

Hau da Elkartasuna. Elgoibarko Alkatea basamortu sutura joan zen, Saharako errefuxiatuekin berba egitera eta bere sostengua ematera.

Oso ondo Alkate jauna, baina basamortua baino gertuago Estatu espainoleko espetxeak daude, agian gure herriko presoak ikus zenitzaken, zure sostengua ernateko. Benetan, portada hau orduan, oso polita izango zitekeen.

Jorge Hernando Gaona

San Bartolome jaiak

Jaiak ongi egon dira orokorrean. Hortxe izan ditugu urteroko barrakak, hor izan ditugu profesionalen pilota partiduak, urteroko sokamuturra eta enbolatuak, betiko martxa... Baina, nik uste, Udalaren lana negargarria izan dela gaueko

ekitaldiak antolatzerakoan. Ekitaldiei buruz mintzo naizenean musika taldeen kontratazioei buruz mintzo naiz. Izan ere, Eskixu ekartzeak edo Txatanuga Futz Band ekartzeak ez ditu, nere ustez, beste lau gaudetako kantaldi negargarriak justifikatzen.

Beste arazo bat euskararena da. Gure herrian, gure hizkuntza, gure betiko hizkuntza, beherantz doala jakinik, ez dut ulertzen nola ekar daitezkeen "Sexteto Erreka" edota "Nueva Alasea" bezalako taldeak. Kontuan izanik euskaraz abesten duten hainbat eta hainbat talde daudela.

Halere, dena ez da gaizki egon eta honekin, Amnistiaren aldeko Gestorek, Gazte Asanbladak, Jarraik, Talde Antimiliak eta Zazpiki Irratiak egin duten lana txalotu nahi nuke. Hauek ere beren jaitxoak egin izan nahi dituzte eta merezi izan du. Hor izan dira bertsolariak eta trikitilariak arratsaldea alaitzeko, jokoak, zinea... Eta, hori bai, musika: Baldin Bada, Brankan, Martxoak 31, Kubanakahn, Morau...

Azkenik, Udalari gonbidapena luzatu nahi nioke datorren urtean musika talde dexenteagoak ekar ditzan, euskal taldeak ekar ditzan, talde faltarik ez dago eta.

Ion Garate Guenega

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





ste honetako erretratua **Amantzi Kondek** laga digu. Berau 1934-35. urtean ateratakoa da. "Rerum Novarum" (gauza berria) enziklikari buruzko hitzaldiaren ondoren ateratako argazkia da goian duguna. Gaur ezezik, garai haietan ere baziren "ilustratuak" gure inguruan. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak:

Goian, ezkerretik hasita: **Avelino Arrieta (t), Felix Ansola, Alberto Epelde (\*), Juan Garate, Julian Bilbao (t), Jose Mari Etxaniz (t), Luciano Ezenarro (t), Asensio Bereziartua (t), Ramon**

**Elorza "Butron" (t), Pedro Izagirre (t) eta Julio Mugerza (f).**

Erdian: **Primitivo iriarte (t), Sebastian Epelde (t), Jose Gurrutxaga (t), Rufino unzueta (f), Lucio uriguen (t), Manuel Alberdi "Olasope", Felix Garcia, Rmualdo Andenegi (t), Romualdo Leiaristi "Parapan" (t), Antonio Manterola (f) eta Elias Unzueta (t).**

Jarrita: **Anbrosio Zabaleta (t), Amantzi Konde, D. Antonio Jaca abadea (t), D. Celestino Onaindia abadea (t), Basilio Larreategi (f) eta Alberto Gurrutxaga (t).**

=

**ELENA**

ileapaindegia

**Depilazio Elektrikoa**

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

-T-  
**Aq**

**ELGOTBAR**

**E44«.1~4.**  
**~~9a,wt**  
Auteta'  
**7~4**  
**9**  
**Ermtio'a \_,'**


**Muruamendiarrak**  
ELGOIBAR

**COZOTEIGIR**


„ San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



# Egingo al dugu jai



harate



Jai Batzordeko presidentea

- **Zer moduz jaiak?** - Ondo pasatzen ahalegindu arren, jaien ardura-dun naizenez, akto inordo batera jun bihar izaten gera. Eta edozein arazo sortzen bada denok jotzen dute gugana. "Alkate txikixak" moduan gera.

- **Ekintza gutxiago aurten** Presupuestua iazkoa baino txikiagoa izan da, 14 milioi t'erdi, iaz 17,5 izan ziren. Zaila da denon gustua egitea. Gazteak ez dira identifikatzen ekintza instituzionalekin. Salbea, aurrekua... ezin dira egitarautik kendu. Maalan egon dira beste talde batzuek antolatutako kontzertuak, baina jendea era-

- **Zer moduz jaiak?**

- Lanian baina ondo. Iaz baino jende gutxio baina ambiente ona.

**Bezperan jaiekin batera hasten zarete zuek ere lanean.**

- Bai. Aurten, txupinazo ostian txanpan botila asko jaso genitxun, pare bat kontenedore betetzeko adina.

**- Jaietarako neurri berezirik hartzen al dituzue?**

- Bai, kanpotik kaleak garbitzeko makina bat gehiago ekartzen dugu eta "camidn cisterna" dei-

kartzen duena ez dira kontzertuak. Taberna inguruetan ibiltzen dira. Ambientia nor bere barruan dago.

- **Aurten ere Plaza hutsik.** - Bezpera eguna kenduta, beste egunetan kriston ambientia egon zan. Egia da Plazatik behe aldera aldatu dela jai gunea, baina infraestruturaz aldetik Maalak ez du Plazak adinako kapazidatea. Erdialdean gunea bat topatzea izango zan ideala baina...

- **Plaza ala Maala?** - Depende. Ederra izango litzateke Maala "a tope" egotia eta plaza ere "a tope". Udala oso tolerante agertu da. Maalan baimenik gabe ekintzak antolatu dira. Aurten gainera ez da folloirik egon Gaztetxea dela eta, alde horretatik pozik nago.

- **Parrandarik?** Astirik ez, Txiki egunian piskat baina besterik ez.

- **Jaiak letik 10era?** - 7ko bat. Dana hobetu leike.

Iñigo Egaña



Mankomunidadeko langilea



# en errepasua?



AZKUE



tzen dana ere, ura botatzekua, gurekin batera ibiltzen da.

- **Kalerik zikinena?**

- San Frantzisko, dudaripe. Han baso eta zerbeza botila ugari biltzen zitxugun taberna bazterretan.

- **Lanerako egunik txarrena?**

- Igande goiza. Zapatu gabian jende mordo bat ibili zan eta hori igartzen da goizian, kaliak garbitzeko orduan. Gainera, sokamuturrarako dana garbitxu bihar izaten dou eta gaupasero asko ibili zianez egun hartan, lanerako ere okerro, traba gehixao eukitzen dou eta.

- **Zer moduz gaupaseroekin?**

- Gauza hoberik ez dao norbera ondo jutia baino haiek ikusteko. Betiko bromak itxen ibiltzen dia, makinara igotzen, zapatak garbitzen... Baina jendia oso ondo portatzen da.

- **Juergarako astirik?** - Bai, zeozer beti geratzen da ahal dan bezela aprobeatzeko.

- **Jaiak letik 10era?** - 8ko bat.

- **Zer moduz igaro dituzu jaiak?**

- Oso ondo pasau ditzut baina piskat estresauta. Lan gogorra itxeko ordua izan da baina ondo.

- **Zein lan tokatu zaizu egitea?**

- Aurretik kontaktuak eixia, ekin-tzak koordinatzia, antolakuntza lan gutzia egitia.

- **Inoiz baino txozna gehiago, ez?**

- Bai, lau egon dia. Beste urteetan egin ez dogun mobidia ein dogu txozna guztiak elkarrekin, eta fruitua oso ona izan da. Espero gendun bezela jaixeri beste giro bat eman diogu.

- **Bete all dira zuen helburuak?**

- Bai. Aspektu ekonomikotik, urteko gastuei aurre egiteko eta gure ekintzak antolatzeko dirua atera dogu. Bestetik, ikusi dogu kriston azeptazioa euki dula mobida honek eta Udaletxeko presioari aurre egin ahal izan diogula. Udalak atera zuen araudiari buruz, garbitasunari buruzko puntuarekin ados geunden baina txoznak 5etarako itxi beharra eta programa ofizialetik ekintzak antolatzea debekatzea oso gaizki iruditu jakun.

- **Parte hartzea nolakoa izan da?**

- Ondo egon da. Beste sektore batzuk ere lanean ibil diala ikusi dogu eta ez gaiztiak bakarrik. Gurasuak ere ikusi ditugu, ez gaiztiak beste, baina bai.

- **Plazako ala Maalako giroa?** - Maalako girua Plazan ipiniko nuke.

- **Parrandarik?** Azken hiru egunetan lorik ein gabe egon nintzan.

- **Jaiak letik 10era?** 7ko bat emango nien.

**Xabi Zelaia**



hoznetako ordezkaria

**Jose Ramon Bastida**



Tabernaria

- **Zer moduz jaiak?** - Oso ondo, oso ondo.
- **Zenbat egon zarete barran?** - Bost barran eta bat basuak jasotzen.
- **Lana eta juerga konpatibleak al dira?** Bai. Gustoro egongo nitzan barratik kanpo baina ezin danian ahal dan bezela moldatzen zera.
- **Jende aldetik, zer?** - Gaez oso ondo eta zapatuan a tope ibili ginan.
- **Zein izan da jaietako abestia?** Carlos Vives-en "La gota fria".
- **Eta gehien edan dena?** - Kalimotxo, eta zerbezia ere asko. Igartzen da krisixa, oin ez da edaten hainbeste konbinatu edaten.

**Ze ordutegi izan duzue?** - Eguerdiko 12etatik hirurak arte. Eta arratsaldeko seiretatik goizeko sei t'erdia arte.

**Eguna?** - Neretzat urte osoko egunik txarrena da. Jendia asko desfasatzen da eta ez da konturatzen barra barruan ere beste batzuk gaudela. Hala ere aurten bestetan baino hobeto ibili da asuntua.

- **Egunik onena?** Zapatu gaua, gau hortan etaritzen da ixa jai guztietan beste.

- **letik 10era?** 8ko bat.



- **Jai onak?** - Bai, oso onak. Berezixak izan dia aurten.

**Lanerako ala festarako sasoi?** Lehenengo lana dao baina Elgoibarren gustora jotzen dogu. Herrixakin ondo konektatzen dogu eta herrixak gurekin ere bai.

- **25 Txiki bizkarrean.** - Oso berezixa izan da Txiki Eguna. Berrogita hamar musiko pasau dia txarangatik, eta hiru ezik, danak egon ginan.

- **Eguerdiko kalejira?** - Goizeko Dianatik nabarmentzen zan inoiz baino jende gehixao zauala. Ez zan beti bezela, Errosaixo kalian kontzentrazio guztia izan. Maalatik gora ikusten zan ez zala betiko moduan, martxa erreza izan biharrian, motela zan. Jendia bultzaka zetorren Maalatik eta Plazan amaitxu gendun, 43 musikuak kioskuan azken piezak jotzen.


- **Omenaldiak?** - Bazkarixa oso emozionantia izan zan. Paiñelu batzuk, bordautakuak, erregalau genduzen eta hasieratik txarangan gauden bederatziei, egurrez egindako bonbo bat oparitu ziguten.

- **Bartoloak Txikirik gabe?** - Uff! Oso gogorra.

- **Parrandarik?** - Txiki Eguneko bazkarixan ostian, baina txikixa.

- **Jaiak letik 10era?** - 8ko bat.

**Jose Alberto Ansola**



"Mauxitxa"



**Maier Gurrutxaga**



Ikaslea

**Zer moduz jaiak?** - Ondo pasau ditxut baina beste urte batzuetan baino pobriauak usten dot izan diazela. Nik behintzat zeozer faltan bezela igeritzen naban.

- **Faltan ze zentzutan?** - Ez dakitx, jende gutxio ibili da eta ambiente aldetik ere bajutxuo, trankilo, beste urtietan desfase gehixo ikusten zan jendian aldetikan. Larunbata izan zan egunik fuertiena, jende gehixen ibili izan zan eguna zan, pasada bat! Ekitaldi aldetik ere nik kontzertu gehixo ipiniko nitxuzke. Hala ere egon dia.

- **Zein da egunik onena?** - Neretzat Txiki Eguna. Hori da egunez ibiltzen naizen egun bakarra, kuadrila guztia urtetzen gera, poteua in goizian, gera bazkarixa eta gorputzak aguantatzen daban arte.

- **Parrandak, zer?** Egunero urten naiz baina etxera beste urtietan baino goizo jun naiz. Parrandarik haundixena Iarunbatian ein naban.

- **Gaez ala egunez?** - Txiki egunian ezik, normalian gaez. Egunez lo. Batzuetan eukitzen dot penia baina ohia ere gustatzen jata eta...

**Jaiak letik 10era?** - 6ko bat.



## Nola duzu



**AMAIA ARRIZABALAGA**  
24 urte, langabetua

Oin paruan nao eta nahiko gogorra in jata ze ez daki zu noiz hasiko zeran lanian, zer egingo dozun... Oporretan gauza hoiek ahaztu itxen ditzuzu.



**GUADALUPE MUJIKA**  
72 urte, etxekoandrea

Guk igual igual pasatzen douz urteko hil guztiak. Setienbria gustatzen zat udazkena hasten dalako, udazkena asko gustatzen zat. Nik pena gehixen eukitzen dot umiengatik.



**ISABEL GUTIERREZ**  
43 urte, etxekoandrea

Aurten oso txarra, senarrak Lagun-en egiten du lan eta langabezian geratu da. Beste urte batzutan, oso gustura bueltatu izan naiz etxeko lasaitasunera.



**FRANTZISKO MUGURUZA**  
74 urte, jubilatua

Neretzat ez da kanbixatzen eguna hil batetik bestera. Lehen, lana itxen nabanian hastia zan gogorra baina oin ez dakitx ze egunetan bizi naizen ere, ez jata inporta eta.



**ANGEL M. AGIRREZABALA**  
28 urte, ikaslea

Oporretan Elgoibarren egon naiz eta ez jata hain gogorra egin iraila. Hala ere, Liverpool-en nago ikasten eta gogor samarra egiten da jutia, inglesa... baina ohitxu arte.



**ALBERTO DIEGO**  
14 urte, ikaslea

Alde batetik gogorra da eskolara bueltatzea oporrrak amaitzen diazelako baina bestetik gogo piskat ere eukitzen dot, oporrrak azkenian Iuziak itxen jataz eta.

**HISPANIA**  **ZURICH**

**C. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

...Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 09

**DEKORAZIOA**

*Aure*

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

**1<sup>o</sup>** Instituto **Miguel ALTUNA** (ELEMENTALA)

institutua **BERGARA**

**BATXII I ERGO OROKORRA**

**GOI MAILAKO** **BTI** (Batxilergo Tekniko Industriala)  
**BATXILERGOAK** **BAG** (Batxilergo Administrazioa)

**L.H. II (LANBIDE HEZIKETA II)** Administratiboa  
Elektriko-Elektronikoa  
Mekanika

**MODULO PROFESIONALAK III** Mekanikaginizatzailea  
Enpresen administrazioa

**Matrikula epea: Irailak 8tik 12ra.**  
**ARGIBIDEAK:** Ibargarai, I. Tel.- 76 38 40  
**ORDUTEGIA:** Goizeko 9etatik 13ak arte



## ■ Nagusien heziketa

Nagusien Heziketaren barruan, eskola graduatu titulua ateratzeko matrikula epea zabalik dagoela jakinarazi nahi du UdaI Kultur Zerbitzuak. Matrikula epea irailaren 17an bukatuko da. Interesik edukiz gero, jakin Pedro Muguruza ikastetxean, astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik lera, eman daitekeela izena.

## ■ Hauteskundeetarako zerrendak

1994. urteko urtarrilaren lari dagozkion hauteskunde zerrendak hil honen 12ra arte eskura egongo dira Udaletxeko bulegoetan herritarrek beharrezko deritzen zuzenketak egin ahal izateko.

## ■ Besaidera irteera


Urtero bezala Euskal Mendi Federazioak Besaidera irteera antolatu du mendizale guztien oroimenez. Morkaikok mendi irteera burutuko du egun horretan, mendi gailur bat egin ondoren Besaidera heltzeko. Foruen Plaza izango da irteera lekua, eta ordua goizeko 8ak. Zenbatekoa 800 pta bazkideentzat eta 1000 pta bazkide ez direnentzat izango da.

# 91 kaleratu laguiven



Elgoibarko "Maquinaria Lagun" enpresak ehun eta berrogeita bi langiletatik, laurogeita hamabi kalera- tzea erabaki du. Borondatez Iantegia uztea nahi zutenek, joan den abuztuaren 26ra arte zuten izen emateko epea. Guztira 45 aurkeztu ziren eta hauek 5 miloi t'erdiko indemnizazioa jasoko dute. Kopuru honetatik hiru miloi Eusko Jaurlaritzak jarriko ditu, 600.000 pta enpresak berak eta gainontzekoa ordaintzeko, lantegian geratuko diren langile bakoitzak 250.000 pta jarri beharko ditu. Hala ere, beste 46 pertsona kaleratuko dituzte, azken hauek eskuz aukera-

tuak. Langileak ez daude ados enpresak hartu duen erabakiarekin. Alde batetik, "erabaki guztiak Langileen Batzordearekin kontsultatu gabe hartu dituztelako". Bestetik, "gaur egun makina-erremintaren egoera hoberantz doala aurrakusten da", hori dela eta horrenbeste lagun kaleratzea gehiegizkoa dela uste dute. Gainera, "desagertarazi nahi duten 'Fresadora Universal' deituriko makina da eskulan ugariena eskatzen duena eta oraindik ere badu etorkizunik". Arrazoi hauek bitarteko, aipatu enpresako langileek manifestaldiak egingo dituzte.



## ANCHUSTEGUI Sa

### ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Billegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
20870 - ELGOIBAR  
Gipuzkoa



## VZKIKOS &

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar


- \* IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX

## Cordon Viliarchao c.b.

### DEKOR AZIIC) A.

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOIA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70



## TERKI GONGAILUA K

deitu gabe luan  
konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 • w ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa), 20600 EIBAR





**Hasi dira elizako obrak.** Jarri dituzte dagoeneko San Bartolome eliza inguruan berritze lanei ekiteko lehen andamioak. Teilatutik hasiko dira konponketak egiten, bobedak ziurtatu eta impermeabilizatu ondoren barruko lanekin hasteko. Barruko ormak margotuko dira eta eliz-lokaletan zolu berria botako. Elizaren ordezeko modura, datorren astelehenetik aurrera taldoen bidez estalitako eliza itxurako bat muntatuko da Leku Ederreko parkera begira dagoen arkupean. Goizeko 9etako eta arratsaldeko 7etako mezak, Santa Klaran ospatuko dira eta hileta elizkizunak, aldiz, arkupean. Lehen fase honetako aurrekontua 61 milioi ptakoa da.

## jubilatu en ibilaldiak

Zaharren Biltokiak antolatuta, Cabezon de la Sal eta Santillana del Mar herrietara txangoa burutuko da hil honen I 4an. Txangora joateko ordaindu behar diren 995 ptako prezioaren barne daude gosaria, bazkaria, dantzaldia eta oparia. Izena emateko epea hilaren 11n bukatuko da. Bestetik, Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak 3 adinekoei zuzendutako IV. ibilaldi neurtua antolatu du hil honen 24rako. Donostian burutuko da lasterketa, Gross auzoan hasita, "Peine de los vientos" deritzon lekura arte. Hamabi km-tako bidea izango da, bi ordu t'erditan egin ahal izateko erodukoa. Bukaeran lagunarteko bazkaria egingo da partehartzaile guztien artean. Izena astelehenetik ostiralera eman ahal izango da Zaharren Biltokian, 10etatik 12etara bitartean. Azken eguna hilaren 9a izango da.

egin witez bakide  
1 i

**Ifaijde honekin eta zure lamarrut\_ zairelcrin**

**GAIMEIS MAILAUA**



**C**

**RLGOIBAR**



<sup>1</sup>Bazkide izateko deitu 74 19 49 telefonora edo pasa Mintxetako ofizinetarik



• **Margo lehiaketa**

San Bartolome jaietako Umeen Eguneko Jendaurreko Margo Lehiaketako antolatzaileak larunbat honetan, hilak 10, Parrokiak Ubitarte 4ean duen lokalean egongo dira, goizeko 10etatik iletara bitartean, nahi duenak bere lana jaso dezan. Saritutako lanak, bederatziz guztira Arrizabala Harategian egon dira ikusgai.

■ **Txoznen balorazioa**

Jaietako Txoznen Koordinakundeak iragan berri diren jaietako buruzko balorazio guztiz positiboa egin du "gure helburuak ehuneko ehunetan" bete baitira. Batetik, gazteriarekiko hutsunea betetzea lortu dute eta bestetik, urteko finantziatorako sarrerak lortu dituzte. Dena den, lortutako dirutik 700.000 pta kendu behar dira, hori izan baita jaietan zehar txoznek izandako gastua. Era berean, parte hartu eta lagundu duten herritar zein talde eta elkartei eskerrak luzatu nahi dizkie Txoznen Koordinakundeak, "aurtengo esperientziak datorren urtean gauzak seriago hartu eta hobeto prestatzeko indarra eman digularik".

# GAYAKANPADA Ellgolbarren




Pasa den asteburuan GAYAKANPADA bat izan zen Aubixan, EHGAM-ek (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) antolatua. Hirugarren aldia da aipatu akanpada egiten dena, urtero leku diferentetan, eta Estatu mailan zabaltzen da deialdia. Honela, aurtengo adibidez, 120 pertsona bildu dira (horietatik hamar emakumeak), Euskal Herriko ezezik, baita Andaluzia edota Asturias aldetik ere etorriak, besteak beste.

Kanporatzea, kaleratzea" deitzen dute akanpada. Antolatzaileen hitzetan, "getotik ateratzea. Larun-

bat gau batean, taberna zuloan sortzen den harremanak ez du zerikusirik hiritik kanpo eta elkarrekin bizitzeko daitekeenarekin".

Ostiralean izan zen harrera eguna. Zapatu goizean Arratera eta kalamuara joan ziren eta arratsaldean hiru tailer izan zituzten, "energia positiboari" buruzkoa bat, masaiak besteak eta, azkenik, debatea. Gauerako utzi zuten festa giroa, "berbena antzeko bat". Domekarako ere antolatu zituzten irteerak, hala nola, Markinara eta Loiolara.



*Aterpe tabernahoo  
ESKERRAK eman  
nahi dizkizuegu  
jaietan gure artean  
ibili zareten guztioi.  
Honekin batera,  
taberna berriz ere  
ZABALIK dagoela  
fabfinarazi nahi  
dizuegu.*

# Kalitatea eta kantitatea

**E**legantia, urtian zihar egoten dan egunik politxena!". Honako hau zen San Bartolome jaie-tako Baserritarren Egunari buruz hurbildu zen jendetza-ren ahotan entzun zitekeen komentario orokorra. Aurreko egunetako ajea batek baino gehiagok gorputzean igerri arren, aurpegi berriak eta jai giroz beteak ere ikus zitezke-en han hemenka.

Goiz partera trikitilari-ekin zioten jaiari eta ez zen egun osoan animaziorik falta izan herriko kale nagusietan. Plaza Txikian bildu zen Ganadu erakusketa, benetan "ederra", adituen esanetan. Sariketarik ere izan zen ganaduari dagokionean. Eta el-goibartarrek jaso zuten sari-



rik, hala nola, Pirenaika arrazan Aldapa baserrikoa den Ramon Larrañagak bigarren saria eskuratu zuen 1,5-2,5 urte bitarteko behien atalean, lehenengo saria 2-4,5 urte bitartekoen artean eta hirugarrena 4,5 urte baino gehiagoko behien artean. Suitza arra-

zako sari guztiak Antonio Gorritik jaso zituen, Arregi Torre baserrikoa berau. Akei baserriko Domingo Arriolak, berriz, 5., 6. eta 7. sariak irabazi zituen Blonda arrazarekin. Hauetaz gain Limousin eta Friso arrazak ere saritu ziren.

Egarri zenarentzat, sagardo goxoa zegoen aukeran eta eguerdi aldera banatu ziren sariak: Aburuza izan zen txapelduna, Urruzola bigarrena eta Gaztañaga sailkatu zen hirugarren postuan.

Horrelako egun batean ezin falta Herri Kirolik, ez eta bertsolaririk edota erromeriarik. Gustu guztietarako egun konpletoa, barruak bapo bete eta busti, eta zein baino zein gusturago buelatuko zen etxera. Datorren urtera arte!





## i2J1 2)21).19.191.1:3r2.:19 1.311412, l'19111 itun?

**i**783ko jorrai-  
laren 29an  
erregeak  
eman zuen baime-  
naren bitartez, El-  
goibarrek beste  
agermen bat egiten

du irailaren azkenengo larunbatean".  
Hori dio, besteak beste, Elgoibarko hi-  
riari buruzko aipamen batek.


Feriei buruz, gaur egun urtean ze-  
har egiten direnen artean bi dira bes-  
teetatik (urtean zehar eta hilero, azken  
larunbatean egiten direnetatik) bereiz-  
ten direnak; bata, San Bartolomeeta-  
koa, hau da, abuztuan herriko jai na-  
gusiekin batera izaten dena eta bes-  
tea, urtearen azken larunbatekoa,  
abenduko azken larunbatekoa, alegia.

San Bartolome jaietako ferian ga-  
naduari ematen zaio lehentasuna,  
"Deba Beheko Ganadu Sariketari",  
*Tricall' ZUZEN e f e. Dele* u ugu i udi i pil etd  
ekintzak antolatzen dira, besteak bes-  
te, herri kirolak, sagardo sariketa, triki-  
ti soinua, bertsolariak eta abar luze  
bat.

Urteko azken larunbatean, ostera,  
ortu, hegazti, fruitu eta loreen arteko  
sariketa egiten da. Halere, egun ho-  
rretan, Goiko Errota elkarteari esker,  
Elgoibarren entzute handiko gazta sa-  
riketa ospatzen da.

Feria gaurko izakerara egokitu da.  
Atzean geratu dira urrutitik abereak  
ekartzeko erak, baita ileak mozteko  
makinatxoak ere, metxa lodiko txise-  
roak, txakurraundiko bertsopaperak,  
zapata lokarriak, behiak neurtzeko  
kordelak, txarlatanak eta "Leon Salva-  
dor" famatua bera ere biltzen zireneko  
feria egunak ere. Guzti hoiere eta  
gaurko ferairen arteko konparazioa  
egiterakoan, nori ez zaio sortzen nos-  
talgia antzerako bat?

**Maritxu Loiola**



**Frantzisko Iriondo**  
**80 urte, Mendaro**

Ondo doia, Elgoibarren urtian zihar  
dauan egunik onena da. Ganau  
aldetik ona eta asko dao, eta gaur  
beste jende, sekula ere ez!

**Andres Bengoa 64 urte,**  
**Izarre baserria, Bergara**

Ondo, hona behera  
etorritxakuan ondo pasatzen da,  
ganaua ikusi, bazkari pasadia  
ein eta etxera. Aurten beste  
batzuetan baino ganau gitxio  
dauala uste dot nik.



**Mari Karmen Ansola**  
**33 urte, Elgoibar**

Oso ondo, geu baserritxarrak  
geranez ba ganaua ikusten dou,  
ta gero Plazara beste buelta  
bat, herri kirolak ere gustatzen  
jakuz. Hauxe da urteko ferixarik  
ederrena,



**Marina Baskaran 48 urte,**  
**baserria, Mariña**

Ondo, jendia ikusten da asko ta  
ganaua ere ederra. Ni neu  
sekula ez naiz egon lehen  
baina datorren urtian ere, ahal  
bada, etortzeko asmua dakat.



**Miguel Lizaso 58 urte,**  
**Tolaetxe baserria, Mutriku**

Autobusian etorri naiz ni  
lagunekin. Ganau ona ikusi dot  
hemen, okela asko eta esnegai  
onak. Girua ederra dao, oin  
bazkari pasada eder bat ein ta  
egun pasa hemen.



# URRUZUNO AUZOA

**H**or datoz urruzunotarrak, hartu bai ta eman batez".

Esaidi hau behin baino gehiagotan errepikatzen omen zen garai batean Elgoibarko hainbat auzotako bizilagunen artean. Arrazoia? Urruzuno "Santurik gabeko auzoa" da, santurik ezean, ez eta jairik ere. Honela, inguruko jai guztietara joaten ziren urruzunotarrak, euren auzoan izaten ez zituzten erromeriak beste tokietan aprobeixatu asmoz. Hortik, beraz, esaera, zonaldeko jai guztiak hartu bai, baina gero nola ordaintzerik izan ez.

Esanak esan, Egoibarren dau den auzo guztien artean Urruzuno dugu ez santurik, ez ermitarik, ez frontoirik ez bestelako zerbitzurik ez duen bakarra. San Pedro kalera bidean, eskuma aldean, aldapa izugarri maldatsua igo, trenbidea



Urruzuno auzoa da herriko auzorik ezezagunena.

zeharkatu eta paraje eder batean, zenbait baserri eta orain bukatu berri duten fokal soziala.

Beharbada gutxien ezagutzen dugun auzoa bada ere, inguru hauetako piasaiak benetan pena merezi du.

III BASERRIAK: Abatetxe, Aldapakoa, Antxusiota, Aranbeltz, Erzilla, Irizabaleta, Lekunberri, Munaundi, Urruzuno Haundi, Urruzuno Berri, Urruzuno Etxetxo.



## EUZOETAKO ALKATEEKIN BERBETAN

Jose Luis Maguregi :

### "Guk ez dakau santurik, Sallobenteko elizatik dependitzen dou"

- Auzorik txikiena eta ezezagunena.

- Bai, igual ezezaguna ez dakaulako santurik, ez elizarik ez jairik. Guk San Lorentzo bailarako elizakin bat itxen dou, hara juten gera eta ez dakau propioa.

- Txikia izate horrek laguntzen al du zuen arteko harremanean?

- Ez da erreza, baserriak lan asko ematen dau eta ez da apenas denbora librerik gertzen. Gainera nola ez dan sekula zentro bat egon... Txikitxan baserri batek zakan esplanadan biltzen ginan umiok eta han ibiltzen ginan danak jolasian. Oin ari gera fokal sozial bat itxen. Bukatutakuan izango dou nun alkartu, nun hitzegin eta soziedade bat ere. Nik uste hoberako izango dala.

- Urte hauetan zein arazo izan dituzue?

- Garai batian, auzora juteko bideabz zauan bategere ondo. Trenbidian gaintetik pasatzen zan ta oso estua zan, kotxia ez zan kabitutzen. Bere egunian konpondu zan ta eskerrak horri. Oin hor gabiz eskonbrieriak jira eta buelta. Demaseko aldia izango da auzuantzat kenduko balebe. Elgoibarko zaborrak eta Bilbokuak ere ekartzen ditxue eta usaina demasa izaten da. Ai dia zeozetan, parke bat edo in nahi dabe ta hasi dia esplanadia leuntzen eta arbolak

sartzen, oin ikusiko segitxuko daben. Amaitxuko balebe hobe, baina...

- Azkoitiko bide berriari buruz, zer?

- Horrek ere guri behintza kalte gehixau in digu on baino. Lehen zakaun oinezko bidia juteko parte batetik bestera, Lekunberrira ta Abatetxe baserrira eta, haura erditxikan moztu dabe, oin eon badao beste bide bat, baina oso fuzia eta aldrebasa da. Guretzat besteko bentajia ekarri badau herrikuentzat, laster itxiko da.



# ● Yntawio M~ziaittatt ciflamiimokt ●

**Solfeo, Koral, Instrumentu eta Dantza klaseak**  
IRAILAREN 12an hasiko dira.

Irailaren 5etik, ostirala, aurrera klase egunak, ordutegia, irakasleak eta bestelako informazioa zehazteko LISTAK jarriko dira Plaza Txikiko eta Merkatu Plazako iragarki tauletan.

**INSTRUMENTU KLASEEN ORDUTEGIA AUKERATZEKO**  
eguna irailaren 12a, astelehena,  
izango da arratsaldeko 5etatik aurrera.

Informazio gehiago: Plaza Agirre 3 - 1 (ordutegia: 5-7)



**sake**  
KOPERATBAK

# ILWEC

**ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA**

## ESKAINITZA BEREZIAK

Negubelarra ereiteko hazia ..... 225 pta/kiloa

1=1 Garoa galtzeko **ASULOX**, 5L/Ha; 500L/ura ..... 5.150 ppta/kiloa

Belardian uztaua eta belar txarrak galtzeko:

300 L/ura	31/Ha	..... Tropotone	1.770 pta/Litroa
	2L/Ha	..... Peresoutex	2.410 pta/Litroa

Belar bolak entsilatzekeko plastikozko zakuak:

**TXURIBELTZ (1,30m. x 2,95m.)koak** ..... 367 pta/bakoitza

Aldapa deshidratatua pardotan ..... 19 pta/kiloa

Kalitate garrantzitsua: Hezetasuna %14tik behera. Proteina %17tik gora

ACTILITH: Txixa potzuak eta ikuluko fosak zaintzeko. Kostra eta arrak galerazi, usaina gutxitu eta ongarria aberastu amoniakoaz osatuz.

Ikuiluan azpira bota daiteke ..... 65 pta/kiloa

**Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 00 - 19 93 30 Faxa: 19 92 70**

DOINUA: Maita Y, una da bizi izlek

## Catalina Gelde

### "Skandalo" dendakoa



#### el Zer dela eta "Skandalo"?

Nere alabek Valentzian ikusi zuten diskoteka baten izena da, gustatu eta...

- **Noiz zabaldu zenuten denda?**

1988ko abenduaren 1 ean.

- **Zergatik telak eta barruko erropak?**

I Telak ni jostuna naizelako eta beste dena konplemento gisa,

- **Jendeak aholkurik eskatzen al du?**

Bai, jendeak zalantza asko izaten ditu eta aholkuak eskatzen ditu.

- **Tela bat hartu eta nola gera daitekeen igerrri al daiteke?**

Normalean bai, hori esperientziak erakusten du.

- **Modeloak nondik ateratzen dituzue?**

Aldizkarietatik, kalean ikusten dituzun gauzetatik, eskapareteetatik...

- **Zer nahiago, zuretzat ala besteentzat jostea?**

Besteentzat. Neretzat josteko nahiko motza nahiz, besteentzat, ordea, ez.

- **Non edo nola ikasi zenuen josten?**

Txikitan hasi nintzen baina gero, honetatik bizitza pentsatu nuenean ikastaro bat egin nuen.

- **Gustuko jostun bat?**

Ez, zehazki ez.

- **Zein koloretako barruko erropa saltzen da gehien?**

Zuria.

- **Bezero hobek, gizonetzkoak ala emakumezkoak?**

Gizonak Gabon inguruan etortzen dira erregaloak egiteko asmoz baina normalean emakumeak dira eroatera etortzen direnak.

- **Santa Luciarengan federik?**

Bueno, beti ospatzen dugu behintzat.

- **Bakazioetan?**

Aurten uste dut hemen geratuko naizela.

BELEN ARRIZABALAGA

Hainbat ikasle ibiltzen dira ikasturtean iheska

izaten dute kurtsuan zehar alperkeri eta festa

Gero azkenean denetarako

nahi izaten dute presta

Lehenengo bati galdezka

Gero apunteak eska (BIS)

Suspenditu ta denek batera

egiten dute protesta

Saiatu ez dan ikasleantzat

sekula saririk ezta (BIS)

Ondorioz udan ikasten dute

gelako onenak haina

zeren hurbiltzen da urtero bez

iraileko examina

froga horretan bilatzen dute

guzti guztiek bikaina

ez da errez alajaina

saiatuko dira baina (BIS)

Bilatzen dute kurtsuan zehar

galdua izan duten grina

Hauxe izan da urte guztiko

alperkerien ordaina (BIS)



JON GARATE





## Roke Urresti:

# "Egunerokotasuna fantasiarea apurtzen dugu"

**Ayerdi gaitzenarekin da ezaguna magiaren munduan. Elgoibartarra da baina ezkondu zenetik Ermuan bizi da. Magian urte asko daramatza nahiz eta gaur egun piska bat alboratua daukan, Dena den, laister batean jarraitzeko**

asmoa duela aitortu digu. Euskaraz hitzegiteko zailtasunak agertu ditu baina, nola edo hala, bere esperientzia eta bizibideak ezagutarazi dizkigu. Euskaraz ondo hitzegitea gustatuko litzaiokeela ere esan digu.

**- Zeu nola sartu zinen magia munduan?**

- Gaztetan "Magia al alcance de todos" liburua erosi neban eta orduan sartu zitzaidan zaletasuna. Gero, Madrilgo astekari batean harpidedun egin nintzan eta horrela hasi nintzen nere kontura.

**- Zer nolako magia egiten duzu?**

- Denetarik piska bat. Baina gehienbat manipulazioa deitzen dena, hau da, eskuekin egiten dena: bolak, kartak, usoak...

**- Zer behar da mago ona izateko?**


Begikotasuna, urnorea eta trebetasuna. Azkena edukitzeko asko praktikatu behar da. Gainera, ikusleekin kontaktatzen jakin behar da.

**- Nola definituko zenuke magia?**

- Ondo pasatzeko artea bezala. Egunerokotasuna fantasiarekin apurtzen baitugu.

**- Hartu al duzu parte ikuskizun batean?**

Bai, askotan. Estatu-ko zein Euskal Herriko hainbat herritan ibili izan naiz. Baina, batez



### "Bahitua sentitu izan naiz"

ere, dantzalekuetan aritu izan naiz, emanaldiak gauez zirenez, nere lanbidearekin konpajinatzen nuen eta. ETBn ere izan naiz pare bat aldiz.

**Zer nolako esperientzia da?**

- Esker oneko lanbidea da. Alde batetik jendearen txaloak jasotzen dira eta bestetik dirua irabazten da ordu erdi bateko emankizunarekin. Ez da beste lanbide batzuetan bezela zortzi orduz aritu behar.

**Planteatu al duzu sekula magiatik bizitzea?**

- Tenporada batzuetan magia eta lana, biak egiten nituen baina "bahituta" sentitzen nintzen, nolabait, lan gehiegi zen eta. Magiarekin ez naban jarraitu ez nuelako nahikoa balore eduki, gainera familia bat daukat eta badakizu...

**- Zer desagertaraziko zenuke mundutik?**

-Gaiztakeria, bekaizkeria eta jende arteko

bizi ezinak desagertaraziko nituzke eta bestelako birtuteak agertaraziko.

**- Ba al dago zaletasunik Elgoibarren?**

- Bai. Ikastaro batzuk eman nituen eta nahiko jende gerturatu zen. Esperientzia oso aberasgarria da. Profesional mailan, magoaren azken fasea da, trukoak erakusten baitira.

**- Sakrifizio handiak eskatzen al ditu magiak?**

- Bai. Arte delikatua denez, asko praktikatu behar da lana eta, gainera, ikusleek trukua ez ikustea lortu behar duzu. Lan bikoitza, beraz.

**- Bitxikeriarik?**

- Duela urte batzuk Laudioko plazan ikuskitzun batean hartu nuen parte. Nik usoak agertarazi nituen baina plaza hartan ere bazeuden. Nere uso batek, nigana bueltatu beharrean, han zeuden beste usoekin ihes egin zuen. Gainera, gehien maite nuena zen. Ez nuen eskuratzea lortu eta pena sentitu nuen.

MAITE ILLONDO

**Santa Klarako komentua**

- 1524. urtean Klemente Vil Aita Santuak, Jausoroko Pedro Gonzalez eta Sarasuako Maria Ramus senar-emazteari baimena eman zien beren lurretan, eta dorretxearen ondoan, "Andra Maria Sortzez Garbia, Jainkoaren Amari" eskainitako kapera eraikitzeko.
- **Otoiztegi** honek San Frantziskoko hirugarren ordenako mojak hartu zituen bere baitan. Pedro eta Mario Ramus bikotearen borondatea, euren dorretxea eta jabetza osoa mojen komunitateari ematea zen, hauek bizimodu duin bat izan zezaten.
- 1528ko azaroaren lean idatzi zuen senar-emazteak testamentua, Bertan agertu zuten kaperak "Andra Maria Sortzez Garbia" izena izatearen nahia bai eta hil ondoren bertan hilobiratuak izateko desioa ere. Testamentu honetan fundazioa hirugarren ordenako mojei beharrean, Klarisei eskaintzen zieten, baldintza bakarra bikotea bertan hilobiratzea izanik.
- Senar-emazteen nahia, dorretxea eta beste hiru etxe Santa Klarako mojen bizitoki, ikastetxe eta komentua izatea zen. Bertan bederatzi moja bakarrik bizi zitezkeen (Andra Mariak Jesus bere sabelean eraman zuen hilabete

- bakoitzeko bana) eta bizimodu pobrea eraman behar zuten.
  - 1531 urtean, Maria Ramus alarguna zela, Erromako "Curia" k bula berri bat idatzi zion. Bertan, Klarisen monastegia sortzeko baimena eman zion, baina aipatu monastegiak Burgoseko Aita Probintzialaren esanetara behar zuen egon, eta moja kopurua ere errenten arabera izango zen. Maria Ramusi konfiantzako emonkume bat izateko baimena eman zitzaien, azken hau mojen kide izanik, errentak kudeatuko zituen eta monastegia janariz hornituz.
  - Klarisen beste komentu batzuetatik zenbait moja ekarri zituzten, monastegi bizitza lehen aldiz onartzen zuten guztiei "Araua" betetzen irakatsi ziezaieten. Honela, Frai Diego Frantziskotarraren bitartez, Ganboako Juana, abadesa bezala eta Elgoibarko Maria eta Elorriagako Katalina, etorri ziren Oñatik Bidaurreko mojak klarisen monastegitik.
- nElgoibarko hiru neska gaztek onartu zuten monastegiko bizitza: Sarasuako Maria Gartzia, Karkizaoko Maria Ibaynesek eta Larriategiko Domenjak.

PELLO ARRIETA



**Jesusa Mugerza**

**(Seroria) (1896-1978)**



Elgoibarren jaio zen 1896an.

San Bartolonae elizako serora izan zen 50 urtez. Lehenago bere ama izan zen.

Seroraren lana zera izaten zen: elizako kandelak piztu, hileta elizkizunetan hilkutxarentzako tumuloa prestatu...

Alargun geratu zen 1936. urtean, bere senarra gerra zibilean hiltzean. Sei seme-alaha eduki zituen.

Oso ezaguna izan zen herrian eta elizan egindako lanagatik. O Aulkiengatik kobratzen zen diru parte bat Serorarentzat izaten zen. Dirutan asko ez izan arren, familiako zama ekonomikoei aurre egiteko modua zen.

1\ Baserritarrek arto eta gari zelemen bat ematen zioten urtean behin, ordain gisa.

Elgoibarren hil zen 82 urte zituela, 1978. urteko otsailaren 3 an.

**Pme Tmaza. WeacutEclweivaa**  
**AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA**

Santa Klara, 10-1  
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30  
Tel: 74 04 68





## MINTZAK

### Atletismo monitore ikastaroa Mintxetan

Deba bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuek eta Gipuzkoako Federazioak atletismoko monitore ikastaroa antolatu dute harnazazpi urtetik gorakoentzat. Ikastaroa hil honen 24tik urriaren 30era izango da aste bukaeretan Mintxetako atletismo pistetan. Izena emateko epea hilaren 19an amaituko da. Horretarako Udal Kirol Zerbitzura jo (Altzola Dorrea 3) edota 74 44 15 zenbakira deitu.

### Eskubaloi taldeek hasi dituzte entrenamenduak

Elgoibar K.E. Eskubaloi Taldeko bost ekipoek hilaren 1 ean hasi zituzten aurtengo denboraldiari dagozkion entrenamenduak. Horregatik, eskubaloian jokatzeko gogorik duen edonori, Olaizaga kiroldegira jo dezakeela edota Patxi Aranberri eta Joxean Hildalgorekin harremanetan jar daitekeela jakinarazi nahi zaio. Mailak honako bost hauek dira: Kadeteak neskak (1979-1980 urteetan jaiotakoak), kadeteak mutilak (1979-1980 urteetan jaiotakoak), jubenilak mutilak (1977-1978 urteetan jaiotakoak), seniorrak neskak (1976tik aurrerakoak) eta seniorrak mutilak (1976tik aurrerakoak).



**Kike Ormaetxea:**

### "I rabazle mentalitatea falta zaio Haundiari"

**0 Gustura Haundiko entrena-tzaile ianetan?** - Oso. Seriotasun handia dagoela uste dut, direktiba mailan zein jokalarien artean.

**1 Eta klubekoek eta jokalariek nola hartu zaituztete?** - Zerbaite-gatik fitxatuko ninduten. Jokalariei dagokionean, gehienak ezagunak nituen eta harremana ere banuen.

**1 Zein inpresio eman dizu ekipo-ak?** Ekipo konpentsatua dela ikusi dut. Jokalari batzuk indar-tsuak dira, beste batzuk teknika handikoak. Plantila ona da, kirol nahiz pertsonal mailan. Jokalariek izan ditzaketan defizientziak hobetzen saiatuko gara.

**1 Denboraldira begira, zein da asmo nagusia?** - Talde serioa osatzea eta ekipo zaila izatea kontrako taldearentzat; puntuak batzen joatea poliki poliki eta lehen lau taldeen artean sailkatzea da gure asmoa. Eta noski, 2. mailara igotzea.

**1 Zein izakera eman nahi diozu Haundiari?** - Ekipo konpletua izatea nahi dut. Lehen eraso-tzailea atezaina izan behar da eta lehen defentsa aurrelaria bera. Gola sartzen digutenean berdin berdin dira errudun aurrelaria nahiz atezaina.

**1 Zaila izan al da taldea osatzeko jokalariai aukeratzeko?** - Aurrendenboraldian 30 jokalaria



eduki ditut eta bederatzi 2. errejionalekoak ziren. Benetan oso maila ona dute, eta aurten 1. errejionalera igoko direla uste dut. Ekipo nagusian jokatzeko maila duten mutikoak daude, baina Haundian ere jokalari onak ditut. Gazteek itxoin egin beharko dute ekipo nagusian jokatzeko.

**Dena den, ekipo gaztea osatu da.** Bai, 30 urteko hiruzpalu kenduta, gainontzekoak 23-24koak eta 19-20koak dira.

**1 Zein da Haundiaren "Talon de Aquiles" a?** - Mentalitate falta. Talde "komodoa" da, bostgarren geratu zen iaz eta gustura aurki-tzen dira dauden lekuan. Haruntzago iritzi daitekeen ekipoa da, irabazle izan daiteke. Taldeak goi-goian egon behar du.

**1 Hurrengo partidua Alaves-en aurka.** - Ez dut ezagutzen. Ilusioz beteriko jende gaztea izango dela pentsatzen dut, eta futbol polita erakutsiko dute seguruenek. Dena den, gu ere gogoz arituko gara.

- Adina: 42
- Zure taldea? Eibar.
- Belar arfiifizialari nota jarri: 7,5 edo 8.
- Zaletasunak? Futbola, futbola eta futbola.

Er3	Erdordp	LIEP	c r2	[12	Epricpc rereorgroso
a					a
<p>Abuztuaren 8an hil zen <b>AITOR ZUAZUBIZKAR IRAEGI</b>ren ahaidehok, <b>ESKERRAK</b> eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.</p>					
5	rpr. "op	c r2	dovrereop	c P	dEl

# 5 nd gike zorrarl egin beharko dio aurre C. D. Ellgotharreko zuzene[ar]lin gazteak

**D**enboraldi hasera ezin hobea izan du Haundiak, Gasteizko Aurrera taldearen kontra irabazi baitzuen joan den igandean Mintxetan. Bi puntu eskuratu ditu dagoeneko Haundiak, datorren igandeko partiduari aurre egiteko funtsezkoak izango direnak.

Aurrendenboraldi bikaina burutu eta gero, zortzi partidutatik sei irabazi eta enpatatutakoak dira eta bi Ermuan galdutakoak. Hormaetxea entrenatzaile eibartarraren asmoa "taldearen bolumena jeistea eta intentsitatea haunditzea" da. Uztailaren 18tik dabil taldea entrenatzen, egindako lanaren fruitu izan delarik Mintxetako garaipena. Lau jokalaria berri daude: Eneko Arrizabalaga eta Koldo, bi hauek Mutrikutik etorritakoak, Argoitia Anaitasunatik eta Galiziatik itzuli den Antxon, elgoibartarra. Bigarren taldeko jokalaria ere talde nagusian sartzen joango dira. Ormaetxearen esanetan "jokalaria hauek nire eki-poakoak kontsideratzen ditut, 2. errejionaleko fitxa izan arren; taldearen beharren arabera, bat, bi, hiru edo lau hartuko ditut". Joan den astebukaerako partiduan, bigarren taldeko Basurto eta Gorka konbokatatu zituen, bankiloan egon ziren arren.



**III** Kirol arloan ezin hobeto hasi dute denboraldia. Erronka arlo ekonomikoan dute.

## Zuzendaritza berria

Klub Deportiboak zuzendaritza osatu berri du, gazte askoz osatutako zuzendaritza. Asmoa gazteek nagusien errelebua hartzea litzateke, urte batzuek barru kluba zuzen-

tzeko gai izan daitezten. Aurtengo aurrekontuaren zenbatekoa zehaztu gabe dagoen arren, 20 milioi ingurukoa izan daiteke, helburua 5 milioitako defizita kitatzea delarik. Sarrerarik garrantzitsuena kuotak dira. Publizitate kanpainari hasi du klubak, bazkide berriak lortzekotan. Gastuak gutxitzearen hartu dituzten beste neurri ekonomikoen artean, jokalarien fitxen jeitsiera da aipagarriena. Alde honetatik oso pozik daude klubeko arduradunak, "gutxiago kobratu arren ez da inolako arazorik sortu jokalariei fitxa berritzeko orduan".

## NOR R. D. goibarren

PRESIDENTEA: J.M. Esnaola. PRESIDENTE ORDEA: Rafael Urrusolo. 1DAZKARIA: Fernando Leonardo. DIRUZAINAK: Aitor eta Jon Galarraga, Jon Iizarralde. BOKALAK: Igor Palomino, Igor Mugerza, Aitor Alonso, Jesus M. Unzilla, J.R. Zabala, Anton Iranzo, Floren Angulo, Rafa Polo, Agustin Unzueta eta Paco Revert. ENTRENATZAILEA: Kike Ormaetna. **afGARREN** ENTRENATZAILEA ETA ZELAIKO DELEGATUA: Juan Martin. MASAJISTA: Roke Etxabe. HAUNDIKO JOKALARIAK: Atezainak Eneko Arrizabalaga, Antxon eta Roberto. Defentsan Alonso, Unai, Argoitia, Galtxa, Iker Beitia, Trebiño eta Igor Egaña. Zelai erdian, Eneko Barreneixea, Gaizka Lazarobaster, Txartxa, Euren, Koldo eta Ferreiro. Aurrean Carlos, Belaustegi, Joseba Igartua eta Fermin Yerobi.

## 14 INTERIORES

- SUKALDE ETA BAINUAK  
- PROIEKTU ETA .  
ERREFORMAK  
DEKORAZIOA  
ERREGALUAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

**GARAY**

**HARATEGIA**  
**URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

## XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Sulae*  
*e9cata eta atutua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

## Andoni Tellabide S.L.

**ITURGINTZA**

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak



# IDIKO:

## Abangoardiako teknokyaia zentma

Gaurko enpresen etorkizuna planteamendu teknologikoen menpe dagoela kontutan hartuz, Idekoren helburua erraminta makinaren sektoreko enpresei erantzun teknologikoa eskaintzea da. Merkatuak eskatzen dituen produktuak eta produkzio prozesuen hobekuntzarako teknologia berriak bereganatuz, asimilatuz, garatuz eta aplikatuz.



• D Kooperatibek sortutako teknologiaren berrikuntzarako zentrua da Ideko.

**1** DEKO, eskaintzen duen zerbitzua enpresen estrategiarentzako funtsezko osagai teknologikoa izateaz gain, nazioarteko merkaturuan konpetitiboagoa izaten laguntzen duen tresna nagusi ere bilakatu da.

Merkatuaren konpetitibotasunak eta internazionalizazioak etengabeko aldaketak eragiten ditu erraminta makinaren sektorean. Sektorearen eskakizun teknologikoei erantzun ezinik, MCC Korporazioko Erraminta Makinaren Kooperatiba Fabrikatzaileek amankomuneko ikerkuntza zentru baten beharra somatzean sortu zen IDEKO.

IDEKOn xedea Iehenaldi hartan, enpresei erantzun teknologikoa eskaintzea bazen ere, ikusmira pittin bat urrunago jarri eta kalitatezko zerbitzua eskaintzea helburutzat hartuta, erraminta makinan espezializatu da IDEKO. Teknologia zentru honek, ordea, 30 ingeniari osatutako lantaldearen jakintza-indarraren aldeko apustua egin du. Ingeniari

hauek, teknologia berriak eskuratu eta berehala barneratzeko ahalmena dute, edozein eskakizun teknologikoen merkatu zabalaren aurrean, zentru irekia izateko ahalmena ematen diotelarik. Hau da, edozein sektoretako enpresei berrikuntzak zein proiektuak eskaintzeko eta aplikatzeko malgutasuna ematen diote.



Produktua eta produkzio prozesuak hobetzeko proiektuen eskaintza da IDEKOn arlo nagusia. Lehenengoarekin, bezeroak produktu horren fidagarritasuna, prestakuntza eta kalitatea hobetzea lortzen du. Fabrikazioa, diseinua edo muntaia prozesuaren efikazia kalitatea eta informazio sistemen bidezko produkzio sistema garatzeko, prozesuaren hobekuntzarako proiektuetan egiten du lan. Bi arlo hauen osagarri modura eta enpresa-bezeroen produktuak eta teknologia eguneratzeko, IDEKOk berrikuntza prozesua aberasten duen teknologiaren bijilantzia eskaintzen du.

Ba omen dago, etorkizuna, nazioaren produkzio prozesuaren arabera dela esaten duenik; baiez-tapen honi Idekok zera eranstean dio: "nazio baten garapen ahalmena, abangoardiaren teknologien aplikazioaren menpe dago".

**.ei.11 ..'''tv.K1 IE**

- X IZENA: IDEKO.
- X SORRERA URTEA: 1986
- X SORTZAILEAK: Danobat, Goiti, Izarraitz, Leaide, Ona-Press, Ortza, Soraluze eta Txurtzil.
- X GERENTEA: Patxi Aldabaldetreku.
- X HARREMANETARAKO PERTSONA: Antxon Lopez de Usorz.
- X IHARDUERA NAGUSIA-. Informazio teknologia, produkzioa, kontrola eta mekanika ingenieritza.
- X LANGILE KOPURUA: 30
- X URTEKO FAKTURAZIOA: 205 milioi.
- X HELBIDEA: Arriaga Industrialdea.
- X TELEFONOA: 74 25 54/58
- X FAXA: 74 36 74

# Beldurrezko e akusketa egingo du Kokoek



• Beldurrezko generoari omenaldia egingo dio Kokoek erakusketaren bidez.

Kalaberak, mamuak, kandelak argizaria dariela,... giro beldurgarrian emango dio Kokoek hasera hil honen 16an inauguratuko den terrorezko komiki erakusketari. Hamabost egunetan zehar, Estatuko lau komigileren lanak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko erakustaretoan.

**G**uztira berrogei komiki orri jarriko dira, batzuk istorio motzak, luzeagoak beste batzuk, baina denak beldurrezko generoa lantzen dutenak. Beldur psikologikoa eta odoltsua ere ikus ahal izango da. Helburua beldurrezko gene-

roa ezagutaraztea da. Erakusketan ez da klasikorik egongo, egileak gaurrengunokoak dira, Madril, Valencia, eta Valladolidetik etorritakoak. Jaime Martin, Santiago Sequeiros, Jose Maria Bea eta Enrique Jimenez dira komikilariak, haue- tariko bi inaugurazio

egunean egongo direla- rik.

### Inaugurazio beldurgarria

Hilaren 16an, arratsaldeko 7etan irekiko da ofizialki erakusketa Kultur Etxeko erakustaretoan. Ekitaldi berezia izango da oso, okasiorako behar bezala girotua. Terrorezko filmerik beldurgarrienean bezala, ez dira faltako hurkatutalcoak, efektu bereziak, kala- berak eta bihotz kolpeak eragingo dituen sustoak. Lunch-a ere, berezia izango omen da.

Erakusketaren osa-


garri modura, terrorezko filmeak emango dira. Hilaren 16an gaueko 10etan beldurrezko fil- mea emango da. Hurren- go ostiralean, hilak 23, "beldurrezko gaua" izen- burupean bi filme, beldu- rrezkoak noski, eskainiko dira Herriko Antzokian eta tartean, kontzertu bat. Azken ostiralean, hilaren 30ean, azken pelikula eskainiko da. Hilaren 22an, 28an eta 29an lau orduko iraupena izango duten bideo emanaldiak eskainiko dira Kultur Etxean. Emankizuna gaueko 10etan hasiko li- tzateke eta goizaldeko 2ak aldera bukatu.

Gogoz eta umorez hartu dute Kokoek erakusketa hau. Haseran erotismoaren inguruan egitea pentsatu bazuten ere, azkenean beldurrez- ko generoa hautatu zuten. Kokoe elkarteak urtero antolatzen du eki- taldiren bat, normalki urte batean erakusketa eta hurrengoan, komiki lehiaketa. Aurten erakus- keta izango da urteko ekitaldi nagusia eta 400.000 ptako aurrekon- tua izango dute berau burutzeko.

EIP	ES <sup>3</sup>	LISP Pcp	LIEI
D			3
	<p><i>Abuztuaren 19an hil zen IOSE ANGEL ZURIAURRE</i></p> <p><i>LODOSOren ahaidehok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu</i></p> <p><i>haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz</i></p> <p><i>honetan lagun izan zaituztegun guztioi.</i></p>		<p><b>8</b></p> <p><b>1</b></p>
5			E.
D			
EIP	c.r3	csordroP EsdaroP	c.r2: c.fCI



# Ez nau izutzen negu hurbilak



**Ez nau izutzen neguko euriak**  
izozte eta elurteak  
noizean behin ere gustoko  
baititut  
ez jakineko ezusteak  
monotonia baitakar gauzak  
beti aurrez ikusteak  
datorkiguna hartu beharko  
horrela haitio urteak

**Jannak bi zati egin zituen**  
bihotzarekin antzera  
negu gorria alde haterra  
uda oparoa bestera  
bien arteko diferentzia  
dago txuritik heltzera  
eta zein luze joaten zaigun  
negutik uda heltzera

**Ez, nau izutzen udazkenean**  
zulo haterra amiltzeak  
nere bilotzak behar dituen  
lore arnasak hiltzeak  
uda partean finkatzen ditut  
zorionaren iltzeak  
ta gero ez dit hatere Axolako  
bebin hetirako hiltzeak

**Ez nan iluntzen lasaitasuna**  
galdu hehar izateak  
beste baterako zahalik  
haitaude  
askatasunaren atea  
agina heste urte hat barru  
galduren ditut kateak  
negu hurbilak sortzen ez  
hadizkit  
bereziziko kalteak

**EZ 711T IZUTZEN AFGE ERBILAK**  
uda betezko beroan  
dakidalako irauten duela  
orainak ere geroan

**EZ NAK BELDIRTZEN I DA PARTEKO**  
eguzki bero erreak  
ezpairik gabe onduko haititu  
belardietako larreak  
eguzki izpi beroekin hat  
datozkigun haserreak  
baina lainoek euria bezala  
dakar haserreak barrea

**GI'RE RERE AIN MEI AK IEZAL. %**  
aldatzen da udan haizea  
neguan ere sarri askotan  
ilunaren oinazea  
eguna motza egiten haita  
ordua berriz luzea  
hati bezala izan obi dugu  
urrutikoaren gosea

**EZ AI IZI TZEN OPOR ONDOREN**  
ikasten hasi beharrak  
zilegi baita kontserhatzea  
ohizko obitura zaharrak  
uda garalan berritu arren  
lehen galdutako indarrak  
oraindik orain ere hizi dira  
aitzin sortutako garrak

**EZ IAU LARRITZEN OND ARTZ**  
eta mendia urrun uzteak  
deus ere ez haitu balio hemen  
arrazoi gahe zapuzteak  
urrengo urtean oinarriturik  
dauzkat nik nere usteak  
dakidalako urte hau hezala  
datozkigula besteak

**LIIIko ikasleak**

**Fotero**


OKINDEGIA  
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4  
74 07 35

**TIRO RIRO**



San Frantzisko, 54. 74 13 86



**PINTKO HOTZAK BEROAK  
ETA KAZUELATKOAK**

**ERNA**

$t > 9^{0111}$   
 $I^{*}_{-44}$   
 $40$

Santa Klara -22  
z' 74 26 32



**GARAJE BAT** alokatzen da ganbara eta guzti Juan Mugerza kalean (pista beltza).  
**'a** 74 21 86  
Gauetz 7 1/2etatik 10etara

12 belozidadeko **MOUNTAIN-BIKE TXIKI BAT** saltzen da. Erdiberria. Prezioa: 100.000 pzta.  
**'z'** 74 28 32

**GARAJEA ALOKATZEN DA** ganbara eta guzti. Juan Mugerza kalea. (Pista beltza)  
74 07 10 Gaueko 7,30etatik 10etara.

Bainu gelarako **MANPARA, ARMAIRUA** eta **ISPILUA** saltzen ditut. Prezio oso onean.  
**tr** 74 19 81 Ana Mari

**MENDIKO** plastikozko Koflach Viva Soft **BOTA BATZUK** saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)  
**'r'** 12 04 44  
Deitu eguerdiko 1,30-2,00 bitartean

**MOUNTAIN-BIKE bat eta URETAKO PAIPO bat** salgai, biak prezio merkean.  
74 26 91

Jende famatuaren **ARGAZKI ORIGINALAK SALTZEN DITUT**: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dal ma, Alejandro Sanz, Amistades, Duncan Du,... eta abar. Idatziez adazue eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 sello.  
Helbidea: Igor Galo.  
Zarauz Hiribidea 13 -3 ezk. 20 009 Donostia

**KANPING KARRO BAT ETA OSAGARRIAK** saltzen ditut. Egoera onean.  
**'r'** 74 19 39 Mari Sol

**GARAJE BAT** alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.  
**'t'** 74 21 64

Karabana bat sartzeko **GARAJE EDO LOKAL BAT ALOKATU** nahi dut.  
**'s'** 74 29 52  
Gauetz 8-10 bitartean

**MOTOR bat** daukat **SALTZEKO G.A.C. Onix 2.** 900 km.  
Gauetz, 8etatik aurrera.  
74 29 32

**GARAJE BAT** alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.  
**'z'** 74 08 05

**BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT.** Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.  
**'ir'** 74 18 51

**SURF** tabla bat saltzen dut 20.000 ptatan, "Esus" markakoa.  
**'z'** 74 07 61 Julen (afal orduetatik aurrera.)

**LOKAL KOMERTZIAL BAT EDO GARAJE BAT** saltzen da Urasandin.  
**'74 21 86'**



**HEZKUNTZA ZIENTZITAN LIZENZIATUAK** (Pedagogia) OHO eta REMeko klase partikularrak emango ditu Irailetik aurrera. Talde murriztuak  
**'Z'** 74 39 24 Maite

**PARTIKULARRAK** ematen ditut euskaraz eta erdaraz. OHO eta BUP.  
**'u'** 74 28 53 Alazne

Edozein **TESTU MOTA ORDENAGAILUZ PASATZEN** da eta "Curriculum Vitae"ak egiten dira,  
**'is'** 74 44 47

**FRANTSES KLASEAK** ematen ditut.  
**'vi'** 74 04 59 2etatik 3etara  
**'eta'** 8etatik aurrera deitu.

**BBB eta UBiko FISIKA ETA MATEMATIKAKO KLASEAK** ematen ditut. Euskaraz eta erdaraz.  
74 23 01 Jokin

**KAMARERA BAT BEHAR DA** jatetxe baten lan egiteko. Ez da beharrezkoa esperientziarik izatea.  
74 44 09



Ikasleentzako **LOGELA BAT ALOKATUKO** nuke astean zehar. Jatorduak eta arropa garbiketa barne. Famili giroa.  
**'o'** 74 40 85

**PISU BAT ALOKATUKO** genuke. Deitu 9,30etatik aurrera.  
**'a'** 12 13 69

**PISU BAT** daukat salgai Ermuaranbiden.  
74 27 12

**ETXE BAT SALTZEN** dugu Pedro Muguruzan. Egoera oso onean eta guztiz ainueblatua. Bigarren pisua.  
**'r'** 74 08 57

**BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT** Santa Polako hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztaila, iraila.  
**'tr'** 74 27 02 Ana

**APARTAMENTU BAT DAUKAT BENIDORMEN** alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. Labadora eta aire girotua.  
**'tr'** 741657/113215

## JAIOIrAnAK

Ana Babarro Megido (Uztaliak 3) **'a'** Ane Kortaberria Antia (Uztailak 5) **'o'** Lore Mendizabal Zubiaurre (Uztailak 8) **'a'** Igor Txurruka Etxebarria (Abuztuak 3) • Oihane Diez Astigarraga (Abuztuak 3) • Garazi Marin Garrido (Abuztuak 5) **'o'** Ane Iri-sarri Egia (Abuztuak 8) **'o'** Beñaf Iriondo Unsain (Abuztuak 16) **'o'** Iker, Ander eta Aitor Ezenarro Irusta (Abuztuak 28)

## HILDAKOAK

Celso Teofilo Blanco Garcia, 42 urte (Uztailak 4) • Jose Maria Mugerza leiaristi, 86 urte (Uztailak 5) • Benito Soraluze Arriola, 77 urte (Uztailak 6) • Maria Juana Linares Linares, 81 urte (Uztailak 18) • Jose Luis Salegi Arriola, 77 urte (Uztailak 24) • Jose Inazio Nuñez Santiuste, 31 urte (Uztailak 24) **'o'** Roka Lizarriturri Arrieta, 88 urte (Uztailak 27) • Maria Victoria Mugerza Leiaristi, 80 urte (Abuztuak 5) **'o'** Joaquin Perez Herran, 66 urte (Abuztuak 6) • Angel Aizpitarte Atxa, 59 urte (Abuztuak 7) • Aitor Zuazubizkar Iraegi, 27 urte (Abuztuak 8) **'o'** Maria Etxano Goikoetxea, 91 urte (Abuztuak 11) **'o'** Jose Cruz Iraola Artola, 76 urte (Abuztuak 17) • Jose Angel Zubiaurre Lodoso, 44 urte (Abuztuak 19) • Santiago Urain Lazkano, 81 urte (Abuztuak 20) Rafael Barrenetxea Arce, 60 urte (Abuztuak 24) • Felix Odriozola Aranberri, 69 urte (Abuztuak 25)

## EZKONDUTAKOAK

Jose Alberto Garcia Eizagirre eta Susana Azpilikueta Gurrutxaga (Uztailak 2) • Jose Antonio Iñurrieta Labaien eta Isabei Boyer Gelde (Uztailak 8) **'o'** Javier Alonso Urrejola eta Mari Carmen Fernandez Lecil (Uztailak 9) • Jose Javier Marcos Anton eta Edurne Sanchez Perez (Uztailak 23) • Francisco Manuel Lorenzo ra eta Irene Dominguez Lopez (Uztailak 30) • Ibon Vasalo Bergara eta Amaia Viñaras Uria (Uztailak 30)



## 10 LARUNBATA

22,15 AIRE LIBREKO Z1NEA  
 "Los tres mosqueteros"  
 ✓ Plaza Handian  
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

16,00 ELGOIBAR HIRIA 3.  
 ESKUBALOI TXAPELKETA  
 Hiruren arteko lehiaketa:  
 C.D. Arrate, Jauja E.T. eta  
 Elgoibar K.E.  
 ✓ Polikiroldegian

## 11 IGANDEA

16,00 GARE-REN BILERA  
 ✓ Kultur Etxan.

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA  
 "Baraka"  
 V Plaza Handian  
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

## 11\$ OSTEGUNA

20,00 ANDRAIZEREN BILERA  
 ✓ Kultur Etxean

## 16 OSTIRALA

19,00 KOMIK1 ERAKUSKETAREN  
 INAUGURAZIOA

Gaia: Beldurrezkoa generoa  
 Komikigileak: Jaime Martin,  
 Santiago Sequeiros, Jose Maria Bea  
 eta Enrique Jimenez.  
 ✓ Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Kokoe.

22,15 ZINEA  
 "Ocurri6 cerca de su casa"  
 ✓ Herriko Antzokian

## txandak

### FARMAZIAK:

- 9, ostirala: Ormazabal
- 10, larunbata: Ormazabal
- 11, igandea: Ormazabal
- 12, astelehena: Yudego
- 13, asteartea: Yudego
- 14, asteazkena: Yudego
- 15, osteguna: Yudego
- 16, ostirala: Etxeberria

### OKINDEGIA:

- 9, ostirala: BOUTIQUE DEL PAN
- 11, igandea: ZABALETA

## LOS TRES MOSQUETEROS

USA 1993  
 Zuzendaria: S. Herek  
 Aktoreak: W. Sutherland, R. De  
 Mornay  
 Disney etxearen babespean  
 egindako filmea da. Alejandro  
 Dumasen nobela ezagunaren berri  
 ematen digu pelikulak, Vienako  
 dekoratu eder eta haundiak  
 erakusten ditu ikuspuntu arin  
 batetik. Hiru mosketeroen  
 abenturen kontakizuna da,  
 D'Artagnan, Athos eta Aramis  
 mosketeroen maitasun eta borroka  
 abenturen kontakizun alaia.

## BARAKA

Zuzendaria: R. Fricke (1993)  
 Munduko hogeita hamar herrialde  
 ezberdinetan filmatutako  
 dokumental-ikuskitza da. Hitzik  
 gabeko muntaia da, irudia eta  
 soinua soilik. Musika paregabeaz  
 lagundutako tribu ugarien  
 ezberdintasuna eta dantza  
 folklorikoen aberastasunaren  
 adibide da, naturaren handitasun  
 eta edertasunaren erakusle. 1993.  
 urtean Montrea]jeko Zinemaldian  
 ikuslegoaren saria jaso zuen  
 dokumental ikusgarria da.


## ASESORIA, GOASR

### AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA
- . ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

## LANBROA



# MAALAK (UNI

TUTINAICA

1119ANARIAN

FUNDISSUI

11ALITI DANTIA TALDEA

CCIATEGI

0 GAIIXE, INISUMISU EIA

USTOPEN IDIAUCSITIRE

0 PLIEURE

MCIDAU

0 IRUIDINAZCA

0 IXALAILDALTA

MALIXCAL 31

EALD1N UADA

IDLISCEN ALITEC 11[11TI

113AIMIA

ITESCEN ALIDLISC MANIFISIALDIA


EILISCLACIAE (MAIA LIA

MANISAN

111111LAI11AE

GLIDC CNA

ELLEILINDIWICA



*Gure esirik boroenak*  
*berkOA 011ertu*  
*~&0 0»/See4*  
*g, ~1 iwwfiAI*

ZAZPIKI

JARRAI

TALDE NTIMILITARISTA

EMAKUME GAZTEEN TALDEA

GAZTE ASANBLADA

ANMISTIAREN ALDEKO GESTORAK



# PENTSATU GABE

EMAN  
IZENA  
BERBERE  
HALA

entsatzea beharrezkoa da  
erabakitzen laguntzen baitigu.  
Baina gehiegi pentsatzeak  
ezer ez egitera  
eraman gaitzake.

Horregatik esaten dizugu  
argi eta garbi:  
Ez ezazu gehiago pentsa.  
Euskararen ordua da.  
Eman izena orain!

**LI** UDAL DEBABE  
EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA  
NAFARROA ENPARANT  
z. 742731  
20870-ELGOIBAR

# NO LO PIENSES MÁS